# ***GUION LITÚRGICO***

## CAMPAÑA DE LA PASTORAL SOCIOCARITATIVA
## 29 de marzo de 2015

## "Crea lazos y encontrarás corazones"

## Entrada:

Hermanos y hermanas, desde hace cinco semanas nos venimos preparando de modo especial para las grandes celebraciones de Pascua que ahora comienzan. Nos disponemos a inaugurar la celebración anual de los misterios de la pasión y resurrección del Señor, que comenzaron con su solemne entrada en Jerusalén.

Recordando aquella entrada nosotros nos unimos a los servicios sociocaritativos de nuestra Iglesia (caritas, pastoral de la salud, pastoral penitenciaria) y desde el lema de este año "crea lazos y encontrarás corazones" vamos a unirnos todos a esa familia común que somos desde la responsabilidad de los unos por los otros, acogiéndonos y cuidándonos. Tenemos que construir una sociedad abierta, comprometernos activamente con los más necesitados y asumir la cruz de la misericordia entrañable de Dios que nos salva a todos.

## Acto Penitencial

Haciendo un momento de silencio interior reconozcamos nuestros pecados acogiendo la bendición del Dios del perdón.

> Tú, que te entregaste por nosotros, Señor, ten piedad.
> Tú, que caminas hacia la Cruz salvadora, Cristo, ten piedad.
> Tú, que nos ayudas en nuestro caminar diario por la vida, Señor, ten piedad.

Dios todopoderoso tenga misericordia de nosotros, perdone nuestros pecados y nos lleve a la vida eterna. Amén.

## Monición a las Lecturas

Escuchemos con atención y con fe la Palabra de Dios. El profeta Isaías y el apóstol Pablo nos hablarán del Siervo de dios, del Hijo fiel hasta la muerte, entregando su vida. Pero sobre todo, escuchemos hoy el relato de la pasión de Jesús. Es una narración que culmina con la confesión de fe. “realmente este hombre era el hijo de Dios”.

**Lecturas**

- **Isaias 50, 4-7**. No me tape el rostro ante los ultrajes, sabiendo que no quedaría defraudado
- **Salmo 21**. Dios mío, dios mío, ¿por qué me has abandonado?
- **Filipenses 2, 6-11**. Se rebajó, por eso Dios lo levantó sobre todo.
- **Marcos 14, 1-15, 47**. Llevaron a Jesús al Gólgota y lo crucificaron

## Sugerencia para la homilía

Los textos que acabamos de leer y escuchar nos abruman como pocas veces. Son extraordinarios por su sencilla verdad humana-divina: “no hay mayor amor que el dar la vida por otro”. Dar la vida es la clave de la

pasión, muerte y resurrección de Jesús. No como entre nosotros tantas, veces vemos, quitarnos la vida, no, de ahí no viene nada bueno. Quitar la fama. Quitar el bienestar. Quitar la paz. Quitar la tranquilidad son modos de vida pecaminosos, nos destrozan como personas y corrompen nuestra convivencia. En vez de buscar el bien parece que buscáramos hundirnos, amargarnos. El camino de Cristo es la vida no la muerte. De la muerte como entrega viene la vida como salvación. Cristo vive porque se ha dado voluntariamente en bien de nosotros y nos ha agarrado del brazo para sacarnos de aquello que nos ahoga y nos desgarra como personas y como cristianos.

Hoy los servicios socio-caritativos de la diócesis nos hablan de "crear lazos…", no para ahorcarnos con el lazo, no, sino para vincularnos en una cadena irrompible que nos ayuda a vivir la vida en corresponsabilidad fraterna y cooperativa. Entonces claro que sí, entonces "encontrarás corazones", encontrarás personas, amigos, compañeros, familia, hombres y mujeres reales que, lo que necesitan son abrazos, apoyos, consuelos, refuerzos… Debemos corresponsabilizarnos en la construcción de una comunidad de hermanos y no pensar que ya lo harán otros. Somos todos y cada uno de nosotros los que lo tenemos que hacer mejor.

Hoy es domingo de ramos, un día muy especial para nosotros, comienzo de la semana santa. Jesús entra en Jerusalén en un borrico como mensajero de la paz y todos le aclaman, porque todos queremos la paz, pero resulta en inmediatamente empiezan las reacciones, son nuestras reacciones, cada cual busca algo particular, tiene su forma de entender la paz, la justicia, el amor, la solidaridad…

Está el grupo de los futuros zelotes guerreros que cree que ha llegado la hora que tanto anhelaban: la expulsión de los romanos, la liberación del pueblo judío, el celo sagrado por su fe, la guerra santa.

Están las autoridades establecidas, son saduceos y fariseos, consideran que lo de Jesús está bien pero es muy arriesgado, mejor eliminarlo por seguridad.

Están los romanos invasores que se preocupan por su poder, sus negocios, sus ejércitos, sus ciudadanos y no quieren líos, mejor eliminar a los causantes de los problemas.

Está el pueblo sencillo, la gran mayoría, de pasa de la aclamación a la delación, del apoyo ciego a la traición.

Y los discípulos de Jesús también pasarán, en poco tiempo, de la euforia a la decepción, al abandono y hasta la negación y la traición de pedro y Judas.

¿Y nosotros, dónde nos situamos nosotros? El Papa Francisco se preguntaba: "¿quién soy yo delante de Jesús…, le alabo, tomo distancias…, sintonizo con él, le sigo con la cruz a cuestas de una vida entregada?

Se nos abre un gran misterio; se nos invita a un silencio asombrado ante un Dios, en su Hijo, extremadamente débil; un Dios silencioso…, un Dios entregado…, un Dios que "tanto amó al mundo que le regaló a su Hijo único". Gracias a Dios.

## Colecta

El dinero que hoy recogemos se destinará para los servicios que a través de Caritas, Pastoral de la Salud y Pastoral Penitenciaria venimos realizando al servicio de las gentes más necesitadas entre los pobres de nuestra Diócesis.

## Oración de los fieles

**Unidos con Cristo, muerto en la cruz para dar vida a todo hombre y mujer en su gloriosa resurrección, oremos a Dios Padre.**

- Para que la fuerza de la pasión de Cristo renueve a la iglesia y la convierta en servidora decidida de los pobres y necesitados del mundo. Roguemos al Señor

- Para que contribuyamos a que la alegría del evangelio ilumine y fecunde a todos los pueblos de la tierra. Roguemos al Señor.

- Para la paz, y la justicia, y no el mero cese de la violencia, se instale entre nosotros. Roguemos al Señor.

- Para que la celebración de la muerte y resurrección de Jesucristo haga de nosotros fieles seguidores suyos. Roguemos al Señor.

**Dios Padre nuestro, escucha la oración de tu pueblo y haz que acoja la salvación, que, por su pasión, nos ha otorgado tu hijo, que vive y reina por los siglos de los siglos.**

## Despedida

Hemos comenzado la Semana Santa. Que el sufrimiento de tanta gente pobre y la solidaridad de voluntarios, trabajadores y colaboradores de Caritas, Pastoral de la Salud y Pastoral Penitenciaria y todos los hombres y mujeres de buena voluntad nos acompañen estos días y durante toda nuestra vida

# ***GIDOI LITURGIKOA***

**SOZIO KARITATEZKO PASTORALTZAREN KANPAINA**
**2015ko MARTXOAREN 29an**

**“Loturak sortu eta bihotzak topatuko dituzu”**

## “SARRERAKO OHARRA”

Anai-arrebak, azken bost asteetan buru-bihotz prestatzen ari gara laster hasiko diren Pazkoko ospakizun handietarako. Jainkoa Jerusalemen sartu zenean hasitako pasioaren eta berpizkundearen misterioak ospatuko ditugu, urtero bezala.

Gertakizun hura gogoan dugula, bat egin behar dugu geure Elizaren gizarte-karitatezko zerbitzuekin (Caritas, Osasun Pastoraltza, Espetxe Pastoraltza) eta, aurtengo goiburua gogoan dugula, “sortu lokarriak, eta bihotzak aurkituko dituzu”, elkarrekiko erantzukizun horren bidez osatzen dugun familia horretan bilduko gara, elkar hartuz eta elkar zainduz. Gizarte irekia eraiki behar dugu, behartsuekin konpromiso aktiboa hartuz eta guztiok salbatu gintuen Jainkoaren gupida maitekorraren gurutzea onartuz.

## DAMU-OTOITZA

Barne-isilaldi bat eginez, aitor ditzagun geure bekatuak eta har dezagun barkamenaren Jainkoaren bedeinkapena.

- Jesus Jauna, gugatik hil zinena. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, Gurutze salbatzailerantz zoazena. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, bizitzako eguneroko bidean laguntzen diguzuna. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara. Amen.

## IRAKURKETAK

Entzun dezagun arretaz eta fedez Jainkoaren hitza. Isaias profetak eta Pablo apostoluak Jainkoaren Mirabeaz hitz egingo digute, hil arte leial izanik bizitza eman zuen Semeaz. Baina, batez ere, entzun dezagun gaur Jesusen pasioaren kontakizuna. Fede-aitorpenarekin amaitzen den kontakizuna da: "bene-benetan, gizon hura Jainkoaren semea zen".

**Irakurketak**

- **Isaias 50, 4-7**. Ez diet aurpegia saihestu irainei, eta badakit ez naizela lotsagarri gertatuko.
- **21. Salmoa**: Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?
- **Filipotarrei gutuna 2, 6-11**. Apaldu egin zuen bere burua, horregatik Jainkoak goratu egin zuen.
- **Markos 14, 1-15, 47**. Golgotara eraman zuten Jesus eta bertan gurutzilkatu zuten.

## SERMOIA

Irakurri eta entzun berri ditugun testuek gutxitan bezala estutzen gaituzte. Itzelezkoak dira, beren gizatar-jainkotar egia xumeagatik: “ez da maitasun handiagorik inorengatik bizitza ematea baino”. Jesusen pasioaren, heriotzaren eta berpizkundearen gakoa bizitza ematea da. Eta ez gure artean hainbestetan ikusten dugun bezala, bizitza kentzea, ez. Hortik ez dator ezer onik. Ospea kentzea. Ongizatea kentzea. Bakea kentzea. Lasaitasuna kentzea. Bekatuzko jokabideak dira horiek, pertsona bezala suntsitu egiten gaituzte eta gure bizikidetza usteltzen dute. Ongia bilatu beharrean, badirudi elkar hondatzea eta nahigabetzea bilatzen dugula. Jesusen bidea bizitza da, ez heriotza. Heriotzaren emaitzatik dator bizitzaren salbamena. Kristo bizirik dago, gure onerako nahita hil zelako, eta besotik heldu digu gizaki gisa eta kristau gisa itotzen eta urratzen gaituen horretatik ateratzeko.

Gaur, elizbarrutiko gizarte-karitatezko zerbitzuek “lokarriak sortzeaz” hitz egiten digute. Baina ez lokarriekin urkatzeko, ez, baizik eta kate hautsezin batean elkarri lotzeko, anaiarteko eta lankidetzako erantzukidetasunez bizitzeko. Orduan bai, jakina, “bihotzak aurkituko” dituzu, pertsonak, lagunak, lankideak, senideak, benetako gizon-emakumeak aurkituko dituzu. Haiek guztiek besarkadak, laguntzak, kontsolamenduak, euskarriak… behar dituzte. Anaiarteko erkidego bat eraiki behar dugu guztion artean, eta ez dugu pentsatu behar eginkizun hori beste norbaiti dagokiola. Guk guztiok bete behar dugu hobeto geure zeregina.

Gaur erramu-igandea da, oso egun berezia guretzat, Aste Santua hasten delako. Jesus Jerusalemen sartzen da asto baten gainean, bakearen mezua hedatzera, eta guztiek goratzen dute, guztiok nahi dugulako bakea. Baina bat-batean erreakzioak hasten dira, gure erreakzioak. Bakoitzak zerbait berezia bilatzen du, bakea, justizia, maitasuna eta elkartasuna ulertzeko modu propioa du.

Batetik, etorkizuneko zelote gerlarien taldea dago, irrikatzen duten hori azkenik heldu dela sinetsirik: erromatarrak egoztea, herri judutarraren askapena, haien fedearekiko grina sakratua, gerra santua.

Bestetik, ezarritako agintariak, saduzearrak eta fariseotarrak. Haien ustez, Jesus zuzen ari da, baina oso arriskutsua da, horregatik hobe da hortik kentzea, segurtasunagatik.

Gero, erromatar inbaditzaileak beren botereaz, beren negozioez, beren armadaz eta beren herritarrez arduratzen dira. Ez dute nahaspilarik nahi, horregatik haientzat hobe da arazo-sortzaileak desagertzea.

Bestalde, herri xumea, gehiengoa, goresmenetik salaketara igarotzen da, erabateko sostengutik traiziora.

Eta Jesusen dizipuluak ere, denbora gutxian, euforiatik etsipenera, abandonura eta baita Pedroren eta Judaren ukapenera eta traiziora ere igaroko dira.
Eta gu… non kokatzen gara? Francisco aita santuak hauxe galdetu zuen: “Nor naiz ni Jesusen aurrean? Goratzen dut ala urrundu egiten naiz harengandik? Bat egiten dut berarekin, eskainitako bizitzaren gurutzea gainean dudala jarraitzen diot?

Misterio handia irekitzen zaigu; Jainkoaren eta bere seme ezin ahulagoaren aurrean isilik eta harriturik gelditu behar dugu; Jainko isila, Jainko emana, “mundua hainbeste maite zuen, non bere seme bakarra oparitu zion” Jainkoa. Eskerrak Jainkoari.

## DIRU-BILKETA EGITEAN

Gaur jasoko dugun dirua Caritas, Osasun Pastoraltza eta Espetxe Pastoraltzarentzat izango da, gure Elizbarrutiko txiroenen artean behartsuenak direnei zerbitzua ematen jarraitzeko.

## FEDEDUNEN OTOITZA

**Kristorekin bat eginik, gurutzean hil baitzen bere berpizkunde loriatsuarekin gizon-emakume guztiei bizitza emateko, otoitz egin dezagun Jainko Jaunaren alde.**

- Kristoren pasioaren indarrak Eliza berritu eta munduko pobre eta behartsuen zerbitzari ausart bihurtzeko. Eska diezaiogun Jaunari.

- Gure laguntzarekin, ebanjelioaren alaitasunak munduko herri guztiak argitu eta emankor bihurtzeko. Eska diezaiogun Jaunari.

- Indarkeria amaitzeaz gain, bakea eta justizia gure artean finkatzeko. Eska diezaiogun Jaunari.

- Jesukristoren heriotzak eta berpizkundeak gu haren jarraitzaile leial bihurtzeko. Eska diezaiogun Jaunari.

**Jainko gure aita, entzun zure herriaren otoitza eta utziozu eskuratzen zure semeak, bere pasioaren bidez, emandako salbamena. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

## AGURRA

Aste Santua hasi da. Hainbeste behartsuren sufrimendua eta Caritaseko, Osasun Pastoraltzako eta Espetxe Pastoraltzako boluntario, langile eta laguntzaileen elkartasuna eta borondate oneko gizaki guztiena gurekin izan dezagun egunotan eta gure bizitza osoan.